

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2022ko apirilaren 9a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2022ko martxoaren 9ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Gai-zerrenda

1. 2022ko urtarrilaren 19ko aurreko ohiko bilkuraren akta onestea.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Pozo Fonso Oeste kaleko urbanizazio-obra finantzatzeko plana.
 - 6.2. Zinema zaharraren barnealdea eta kanpoaldea egokitzeko lanak finantzatzeko plana.

Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. 2021eko abenduaren 15ko aurreko ohiko bilkuraren akta onestea.

Alkate-udalburuak aktari buruzko oharrak egiteko gonbita egin die zinegotziei. Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) 2022ko urtarrilaren 19ko aurreko bilkurako akta onestea.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Aitor Beloqui Unzuurrungaza (PP), Eduardo Inclán Gil (PP).

2 (bi) abstentzio: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia) zinegotzi jaunaren abstentzioa bozketa egin den aktan erregistratzen den osoko bilkurara ez bertaratzeagatik sortu da.

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 2/2022 eta 17/2022 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

- 3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
- 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
- 5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
- 6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**

6.1. Pozo Fonso Oeste kaleko urbanizazio-obra finantzatzeko plana.

Aurrekariak:

1. Pozo Fonso kalea 1996tik hirigintzako plangintzan dago jasota, eta BV Cleaning inguruan (Productos Lázaroen ondorengo) A 2126 zeharbidea Logroñoko bide zaharrarekin lotzen du, Arabako Errioxako Partzuergoko Araztegiaren parean.
2. 2021 ekitaldiko aurrekontuko inbertsio-planeari sartutako inbertsioa. 2021 ekitaldian, proiektua idaztea, kargak banatzea eta lanak kontratatzea eta hasia proposatu zen. Lanen egutegiak 2021 eta 2022 ekitaldietan gauzatzea aurreikusten zuen. 2021 ekitaldiko aurrekontuan ekitaldi horren (198.903,00 euro) eta 2022 ekitaldiko konpromiso-kreditu baten (517.925 euro) kargura egindako inbertsioa jasotzen da.
3. Diruz lagundutako obraren finantzatzeko plana, xehetasun hauekin:
 - I. Inbertsioaren kostua guztira: 751.418,00 euro.
Obraren kostua guztira: 716.828,00 euro. 2021 ekitaldia: 198.903,00 euro) eta (2022 ekitaldia: 517.925 euro).
 - Obra-zuzendaritza: 22.990,00 euro.
 - Beste ordainsari batzuk (segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea, zuzendari teknikoa): 11.600,00 euro.
4. Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Udalbatzaren 2020 – II – 9ko bilkuraren akta;

Hau erabaki da:

- 1) Obraren finantza-plana onestea, 3. aurrekarian agertzen den xehetasunarekin.

Aldeko 4 (lau) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

4 (lau) abstentzio: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzuurrungaza (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

6.2. Zinema zaharraren barnealdea eta kanpoaldea egokitzeko lanak finantzatzeko plana.

Aurrekariak:

1. 53/2021 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakia, urtarrilaren 14koa, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021 programaren kargurako laguntzak onesten dituen. Espediente-zk.: /100078: «Zinema Zaharraren barnealdea eta kanpoaldea egokitzea».
2. Diruz lagundutako obraren finantzatzeko plana, xehetasun hauekin:
 - II. Inbertsioaren kostua guztira: 654.358,86 euro.
Obraren kostua guztira: 618.421,86 euro.
Obra-zuzendaritza: 18.029,00 euro.
Beste ordainsari batzuk (segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea, zuzendari teknikoa): 17.909,00 euro.
 - III. Foru Planaren bidez emandako dirulaguntza: 278.416,84 euro.
 - IV. Foru Planaren bidez ordainsarietarako dirulaguntza: 18.000,00 euro.
 - V. Erakundeak obrari aplikatzen dizkion baliabide propioak: 340.005,02 euro
57.482,61 + 282.522,41).
 - VI. Erakundeak ordainsariei aplikatzen dizkien baliabide propioak: 17.937,00 euro.
3. Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Obraren finantza-plana onestea, 2. aurrekarian agertzen den xehetasunarekin.

Aldeko 4 (lau) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

4 (lau) abstentzio: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzuurrungaza (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Azken puntua) Galde-eskeak

Ez da oharrik egin.

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate-udalburu amaitutzat eman du bilkura 21:40an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2022ko otsailaren 23an.

Udaleko idazkaria:

O. E. Alkatetza